hurbilago
092
más cerca
@VG_Policia

# “TOCOMOCHO” IRUZURRA

*Jakinarazi adinekoei!*

## 1 HELBURUA: ADINEKOAK

Oro har, iruzurra adinekoei egiten zaie, kalean: bi iruzurgile izanik, bat adineko pertsonarengana hurbildu ohi da, helbide bati buruz galdezka.

## 2 BILLETE SARITUAK

Pertsona horrek -1. gantxoak- biktimari esaten dio billete saritu batzuk kobratu behar dituela, baina ez dakiela non edo ezin duela joan hainbat arrazoigatik.

## 3 IRUZURRA (2. gantxoa)

Halako batean, itxura oneko bigarren pertsona bat azaldu eta billeteak saria dutela dio. Bi gantxoek biktima engainatzen dute gezurrezko billete sarituak erosteko, geroago kobratuko omen duen sariaren zenbatekoa baino prezio merkeagoan.

## 4 BIKTIMAK DIRUA EMATEN DU

2. gantxoak diruaren bere zatia eman eta gero, 1. gantxoak eta biak biktima banketxe batera eramaten dute autoz, bere zatia ateratzeko. Salatutako kasuak 1.000 eurotik 10.000 euro bitarteko iruzurrak dira.

## 5 GEZURREZKO BILLETEAK KOBRATU

Biktimak dirua eman eta gero, gezurrezko billeteak ematen dizkiote, eta biktima 2. gantxoarekin geroago elkartzekotan geratzen da saria kobratzeko. Biktima iruzurraz konturatzerako, haiek ihes egin dute.

POLICIA LOCAL VITORIA · UDALTZAINGOA GASTEIZ